

## ZAHARRAK BERRI NEGOZIAZIOA MAHAIAN

Kristau Eskolak deituta atzo, hilak 19, negoziazio mahaia bildu zen honako gai zerrendarekin:

- 1.- Kristau eskolak aurkeztutako plataforma azertu
- 2.- 2018ko ordain sarien taulak adostu

**STEILAS**ek zalantzak izan zituen hasieratik bileraren helburuaren inguruan susmoak zituen eta Kristau eskolak ez ote zuen erabiliko bere burua zurtzeko eta sindikatuen arteko mesfidantzak sortzeko 4 greba egun aurretik aurkeztutako proposamen hobea aurkeztea izan beharrean.

Eta bete betean asmatu genuen. Kristau Eskolak azaroaren 21ean aurkeztutako eta sindikatu guztiek eskasatzen jo genuen proposamena azaldu zigun. Ekarpene berri bakarri jarri zuen mahai gainean; haur hezkuntzako 1.º zikloko langileentzako 25 ordu osagarri gehiago eskaini zuen, alegia. Beste aldarrikapenen inguruan inolako berrikuntzarik ez eta ezta lan zama arintzeko neurririk aipatu ere. Bere negoziaketarako aldarterik ezaren beste saioa.

**STEILAS**ek gaitzetsi egin zuen, beste behin, proposamena aurrekoetan emandako eta aski ezagunak diren arrazoi berberengatik. Horrez gain adierazi zuen KE eta AICE-IZEA patronalen horrelako jarrera arduragabeak gatazka luzaarazi baino ez duela egiten, mobilizazioak gogortzera dakarrela eta, ondorioz, akordio lortzeko gutxieneko baldintzak zorrotz izango direla.

**STEILAS** jakitun da gure aldarrikapenak jasoko duen lan hitzarmen berri lortzeko zabalik dagoen horrelako gatazka konpromiso handia eskatzen digula langile guztioi. Tamalez, Gabonetako oporrak ostean, ez digute mobilizazioak areagotu beste biderik uzten.

Animo eta aurrera. Denon artean lortuko dugu!!

Hitzarmen berriaren alde, Gizarte Ekimena Borrokan!!